



Azken aldian Italiako “Unione Sindacale Di Base (USB) ” sindikatuak hainbat mobilizazio egiten ari ditu Erroman lan eskubideen alde: grebak, manifestazioak, blokeoak, okupazio sinbolikoak... Honen aurrean Italiako agintarien eta poliziaren erantzuna errepresioa areagotzea izan da. Mafiaren aurka sortutako salbuespenezko 2011/06/09 lege dekretuaren 3. Artikulua USBren eta sindikatuaren idazkari nagusia den Guido Lutrarioren aurka erabiliz. Modu honetan sindikatuko kideak beldurtu nahi dituzte mobilizazioak eteteko. LABek elkartasuna adierazi die sindikatuko kide guztiei. Gainera salatu dute European zehar aplikatzen ari diren politikek prekarietatea eta pobrezia zabaltzen ari dituztela eta neurri hauei aurre egiten dieten sindikatuak zigortzen direla.

LABen oharra:

LABek elkartasun eta sostengua adierazi nahi dio USB sindikatu italiarrari eta bere zuzendaritzako kide den Guido Lutrariorekin. Guido Lutrario USB sindikatuko nazio zuzendaritzaren kide izateaz gain, Erroma kokatzen den Lazio eskualdeko arduraduna da. USB sindikatuak, Guido Lutrario buru zuelarik, mobilizazio garrantzitsuak egin ditu azken urteotan Erromako hirian, hala nola, grebak, manifestazioak, blokeoak, okupazio sinbolikoak, e.a.

Poliza agintariek, Mafiaren aurka sortutako salbuespenezko 2011/06/09 lege dekretuaren 3. artikulua Guido Lutrario eta USBren aurka erabiliz erantzun die mobilizazio hauei. Beldurtze taktika honen xedea askatasuna eta eskubideak murriztea da, etorkizunean bultzatzen diren ekintza sindikala eragozteko.

Ez da USB sindikatuak pairatzen duen lehen eraso. Italiar agintariek gainbera dauden sistemaren aldeko sindikatu handiak babesteko neurriak hartu dituzte, sistema zalantzan ipini eta baldintzatzen duten sindikatu borrokalaria zigortzeko araudia aldatzen duten bitartean.

Araudi aldaketa honen xedea ekintza sindikala gauzatzeko beharrezkoak diren eskubideak murriztea da.

Euskal Herrian salbuespen legeen aplikazioa eta botere ekonomikoek sistemaren sostengu direnen sindikalgintza ereduaren alde eginikoak ezagutzen ditugu. Confedebaskek LAB legez kanpo uzteko eginiko saiakera azken honen adierazgarria da.

Egoera hau ez da isolatua. Urteetan luzatzen ari den sasi krisiaren markoan aztertu beharra dago. Europan zehar lan harremanak aldatzeko honetaz baliatzen ari dira, lan baldintzen prekarizazioa eta pobrezia mugarik gabe zabalduz. Lankidetzeta eta kudeaketan ibilita, sistema laguntzen duten eredu sindikala saritzen dute; borroka, konfrontazio eta klase ikuspegia duen sindikalgintza eredu zigortzen den bitartean.